

XEDAPEN OROKORRAK

OSASUN SAILA

3971

HUTSEN ZUZENKETA, honako agindu honena: «Agindua, 2014ko uztailaren 23koa, Osasun sailburuarena, zeinarekin, batetik, erregistra daitekeen kasuaren definizioa ezartzen baita, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Gaixotasun Arraroen Erregistroari kasuen deklarazioan jaso beharreko aldagaiak.»

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 217/2008 Dekretuaren 18.2.b artikuluan xedatzen denez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak testua argitaratzeko agindu duten organoek zuzenduko dituzte, baldin eta nabarmenak badira, xedapen, egintza edo iragarkien esanahia aldatzen ez badute eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia zuzenduta argitaratzeko aginduko dute.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 2014ko irailaren 15eko 174. zenbakian honako agindu hau eman zen argitara: Agindua, 2014ko uztailaren 23koa, Osasun sailburuarena, zeinarekin, batetik, erregistra daitekeen kasuaren definizioa ezartzen baita, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Gaixotasun Arraroen Erregistroari kasuen deklarazioan jaso beharreko aldagaiak; eta bertan, lehen aipatutakoen moduko akatsak gertatu direnez, dagokien zuzenketa egiten da ondoren:

Euskarazko bertsioan, 2014/3847 (4/2) orrialdean, 2.1 artikuluari dagokionean,

Honako hau dioen tokian:

«10.000 biztanletik gutxienez 5i eragiten dien gaixotasuna»

Hau esan behar du:

«10.000 biztanletik 5 pertsonari baino gutxiagori eragiten dien gaixotasuna»

Euskarazko bertsioan, 2014/3847 (4/3) orrialdean, 3.1 artikuluari dagokionean,

Honako hau dioen tokian:

«9) Heriotzaren data»

Hau esan behar du:

«9) Jaiotze data»

Euskarazko bertsioan, 2014/3847 (4/3) orrialdean, 3.1 artikuluari dagokionean,

Honako hau dioen tokian:

«16) Jaiotze data»

Hau esan behar du:

«16) Jaiotze lekua»

2014ko irailaren 25a, osteguna

Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan, 2014/3847 (4/3) eta (4/4) orrialdeetan,

Honako hau dioen tokian:

«3. artikulua.– Prozeduren eskuliburua.»

Hau esan behar du:

«4. artikulua.– Prozeduren eskuliburua.»